

Gazako itolarria hesiaren barrutik kontatuta

Palestina osoan baldin bada tamalgarria biztanleek Israelen kontrol eta blokeoengatik jasaten duten egoera, Gazako herritarrena bereziki da larria. Analisi, irtenbide eta estrategien azpian, jendeak daude beren eguneroko bizimoduan. Bi blogarik eskaintzen dute lekukotasuna.

HEBA ZAYYAN GAZATARRAK *Contemplating from Gaza* izeneko bloga idazten du. Hona nola aurkezten duen bere burua: “Besteen bizitzaren behatzaile izatea aukeratu dut. Etengabe ipintzen dut auzitan besteek egiaztat daukatena eta absurdoan edertasuna bilatzen dut. Inguru ilun honen erdian indarra nire bi alaben aurpegietao irribarreak ematen dit”. Ez dio askoz gehiago bere buruaz Zayyanek, baina izan behar du norbait: urtarrilaren 28an bere kronika berezia argitaratu diote *Le Monde Diplomatique*ko erredakzioaren blegean (“Gaza, blokeoaren egunerokotasuna”), eta beste bat *The Independent* egunkarian (“Argindarrak galdetzen didate haurrek, eta ezin diet erantzun”).

Urtarrilaren 28an Zayyanek kontatu duena dator ondoko lerrootan. Hamas mugimendua hauteskundeetan Fatah-ri nagusitu zitzaionetik, Gazako milioi eta erdi biztanleen bizimodua presoenaren pareko da. Inor ezin da ez irten eta ez sartu. Beharrezko produktu asko desagertu egin dira saltokietatik. Eraikuntzarako behar diren burdina eta porlana falta direnez, etxegintza osoa geldirik dago. Botika asko ezin dira aurkitu, eta beste asko zorrotz arrazionatuta daude.

Langabezia eta txirotasuna markak hausteraino ugaritu dira. Herritarren egoera psikologikoa asko hondatu da hilabeteotan, espetxeratze, isolatze eta ezintasunezko sentimenduek jota.

Urtarrilaren hirugarren astean Hamaseko hogeit hamar militar gazte hil zituen armada israeldarrak El-Zaytun auzoan egindako erasoan. Erantzuteko, Hamasek kohete batzuk tira zituen Israelera, eta errepresalian honek Gazaren blokeoa erabaki: erregaia, gas naturala eta janaria, hornidura oro eten zaito Gazari.

Hotz handia egin du egun horietan Gazan. Unibertsiteteen ikasleek azterketak berogailurik gabe egin behar izan dituzte. Gainerako etxe eta eraikuntzetan ere bero gutxi izan da, gasa zeukatek tentuz gastatu dutelako, blokeoak oraindik luze joko duela eta. Ospitaleetan asko okertu da egoera, arduradunek erabaki behar izan dute zeukaten energia pitina nola banatu haur jaioberrien gunetan, zaharren geletan... Autorik ez zebilen kasik karriketan.

Hilaren 23an milizianoek Gaza eta Egipto arteko hesia lehertu dute. Zorionez egiptoarrek utzi diete pasatzen eta jendeak arnasa hartu du. Uholde betean pasa dute muga, etxerako mila gauzaren bila askok, Egipton erosi eta gero Gazan saltzeko genero bila beste askok (gautik goizera zigarretak asko merketu dira), batzuek baliatu dute Gazatik eskapo egiteko, lan bila edo ikastera.

“Nire buruari galdetu diot –idatzi du egun horretan Rafah hirian tokatu den Zayyanek– nola ikusten ote dituen kanpoko munduak jende hauek, beren aha-leginak kasik Gazan bezain gauza gutxi

Argazki hau –“Mutiko palestinarrak erosketetan”– Mohammed Omar-ek *Rafah Today* blegean ipini dituenetako bat da. Urtarrilaren 24an dago aterea Egiptorekiko mugan. Bezperan Hamaseko milizianoek hesi erraldoia leherkariz eraitsita, milaka gazar pasatu zen Egiptora. “24 orduz iratzarrita! –idatzi zuen egun hartan Omerrek– Rafah 24 orduz egon da esna, eta hau gauza berria da. Jendea iluntzean etxera erretiratu ohi da, Israelarren erasoak saihesteko esperantzaz. Rafah bezalako mugako herri bat, Gaza hegoaldean, oso arriskutsua da ilundutakoan. Baina gaur, jende oldeak –ehun-milaka– erabaki du erosketetara joatea, ondo ilunduta gero ere. Erostera ezean, jende ugari pasatu da ‘haize freskoa hartzerá’, gazta eta esnez kargatuta etxera zihoan gazte batek erantzun didan moduan”.

dagoen mugaz beste aldeko herrira iristeko, hain pozik eta gogotsu! Niretzako ez dago ikuskizun gazi-gozaogorik jendeo horiek osatzen dutena baino, ilara luzeetan, bide luzea eginda, batak ardia bizkarrean, besteak bidoia bete gasolina, zoriontsu garaipen txiki eta labor hau erdietsi dutelako”.

Gero egun batzuetako arnasaldia bukatu da, Egiptok berriro lortu du ataka ixtea, eta Gazaren blokeoaren inguruko solasak hasi dira luzatzen.

Herritarrek gosez zigortu

Mohammed Omer-ek *Rafah Today* bloga egiten du. Honen jatorrizko helbidea panan dago, baina ikus daiteke *Virtual Activism* gune unibertsitarioak utzi dion espazioan. Gazako bizimodua idatziz eta argazkitan eskaintzen du Omerrek.

Urtarrilaren 28an kronika berezia plazaratu dio Omerri Britainia Handiko *The New Statesman* astekariak: “Gaza blokeoaren beste aldetik ikusita”. Honela hasten da: “Gazako kaleetan lohi ilun ustela zabaldu da. Airean metano eta bakterioen gas usainez bete da. Iturriek gai organikoa darie, gizakien eta abereen hondakinez kutsatutako nahasketa pozoitsua. Okaztagarria da kiratsa”.

Nazkagarrikeria hori dator estoldetako ur zikinek sortu duten putzu berri batetik. Al-Zaytuneko ur zikinen tratamendu plantak egunean 20.000 litro



gasoil behar ditu, baina Israelen eten egin du erregaien hornikuntza oro. Gazako Osasun ministroak aitortu du ingurumen mailako hondamendia ari dela gertatzen Gazan.

Omer mintzatu da Gazako ospitale handiengan, Al Shifa Hospital, harrera eta larrialdien arduraduna den Mawia Hasaneen doktoarearekin. “Hautua egin behar izan dugu ea nori eten argindarra, edo maternitatean dauden umeei, edo bihotzetik dauden gaixoei edo kirofanoetako zerbitzuei”. Hautu latzak, egunetik egunera latzagoak. Gazako ospitaleetan, botikak urri eta tresneriak indarrrik gabe edukitzeaz gain, gaixoak hotzak daude.

Ogia ere eskas da Gazan. Argindarra falta da, irinik ez da iristen inondik, eta okinek ezin dute labatu palestina-

rrek eguneroko ogia duten *pita*. Zentral elektrikoa itzalita dagoenez, Gaza hiriko 600.000 biztanleak ilunpetan bizi dira. Eta beren etxeetako hozkailu eta gainerako armairuak hutsik daude. Etxekoandreek mirariak egin behar dituzte dauzkaten janari apurrekin familiak mantentzeko.

Blogeko beste sarrera batean Mohammed Omerrek Mustafa al Jamal-en biziezina kontatu du. Bere 76 urterekin atez ate eskean dabil. 53 urteko seme Yahya al-Jamalek kancer aurreratua dauka. “Gero eta okerrago dago –esan du aita zaharrak–. Bi hilabetez egon gara botiken zain”. Oxigeno bonbonak laguntzen dio arnasean.

Yahyari bi aldiz utzi zioten Tel Aviveko Sourasky ospitalera joaten iaz. Bigarrenean 9.000 dolar balio duten 28

dosi eman zizkioten; diru hori gero israeldarrek deskontatzen dute Palestinako aginteari ordaindu behar dioten dirutik. Orain berriro joan beharko luke Tel Avivera, baina Israelgo agintariak pasabidea itxi diote, berekin daraman oxigeno bonbona “arriskugarria” delakoan. Eta blokeoarekin, botikak ez dira iristen.

Palestinako Osasun Ministerioaren kontuetan, botiken blokeoagatik 72 pertsona hil ziren urtarrilaren 24a arte. Haurrak, emakumeak eta zaharrak. Jamal artatu duten Gazako ospitalean erradioterapia hartutakoan gaixo batzuek zoruan egon behar dute, edo etxetik ekarritako koltxoetan. Israelgo Giza Eskubideen aldeko Medikuek salatu dute Gazatik Israelgo ospitalerako bidean gaixo bat baino gehiago geldiarazi, galdezkatu eta militarrek behar zuten informazioa ateratzen ez bazieten atzera etxera itzularazi dutela. Hori tortura da nazioarteko legedian.

Urtarrileko egun batean Mohammed Omer lagun kazetari batekin joan zen honen senide baten hiletara. Hileta bukatutakoan, batek proposatu zuen lekuan bertan geratzea, besteek aldiz joatea nahiago. Alde egin zuten eta handik minutu gutxira, autoa utzia zuten plaza bonbardatu zuten hegazkin israeldarrek. Ostera itzuli eta dena zegoen txikituta. Tartean, bi herritar hilik. Urte hasieratik Hamasen kohe-teekin bi israeldar zauritu dituzte. Urtarrilaren 28a arte Israelen 72 palestinar hil eta 293 zauritu ditu. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani kalea - 20084 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL.: 943 420 624

G A R A N T I A